

UDALETAKO TEKNIKARIENTZAKO GIDA

# Euskaraz

eskaintzetik, erabilera sustatzera



EUSKARA SUSTATZEA HELBURU DUTEN HAUR  
ETA NERABEENTZAKO PROGRAMAK

**EUDEL**

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



# Euskaraz

**eskaintzetik, erabilera sustatzera**

EUSKARA SUSTATZEA HELBURU DUTEN HAUR  
ETA NERABEENTZAKO PROGRAMAK



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**



**Gida EUDELen webgunean dago  
eskuragarri:**

**[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)**

(argitalpenak)

**DATA:** 2026ko maiatza

**LEGE GORDAILUA:** LG BI 00630-2026

**ARGITARATZAILEA:** EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea

**EDUKIAK:** Ebete hizkuntza-zerbitzuak eta EUDEL

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Burutu Comunicación SL

**GAZTELANIAZKO ITZULPENA:** Hori- Hori SA

**INPRIMATEGIA:** Editorial MIC

Ercilla 13 – 48009 BILBAO

Tel. 94 423 15 00

[eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)

<b>Sar-hitza</b>	6 or.
<b>0. Dekalogo</b>	8 or.
<b>1. Sarrera</b>	10 or.
<b>2. Euskararen erabilera sustatzea: jarduera euskaraz eskaintzea baino gehiago</b>	12 or.
2.1 Euskaraz izatetik erabilera sustatzerako urratsa	
2.2 Gizartearen norabide berean	
2.3 Hizkuntzaz jabetzeko gakoak	
2.4 Jardueren ezaugarriak	
2.5 Udaleko sail guztietan	
<b>3. Euskara modu egokian sustatzeko oinarriak eta estrategiak</b>	16 or.
3.1 Hezitzailea, euskararen erabileran bidelagun	
3.2 Zaindu beharreko alderdiak	
3.3 Ekidin beharreko alderdiak	
3.4 Estrategiak eta jarraipena planifikatzea	
<b>4. Udaletako teknikariak gidari</b>	20 or.
<b>5. Jardueren kudeatzaileak bidelagun</b>	24 or.
<b>6. Eranskinak</b>	28 or.
6.1 Jarduera aurrera eramaterakoan koordinatzaile eta hezitzaileek zaindu beharreko prozedurak	
6.2 Jarduera baten prozedura adibidea: Udaleku Irekiak	
6.3 Jardueretara egokitutako estrategia adibideak	
6.4 Baliabide lagungarriak	
6.5 Jarraipena egiteko eta ondorioak ateratzeko baliabide telematikoa	



**Sar-hitza**

Esku artean duzun gida hau udalentsako, bereziki teknikarientzako, tresna bat da, hau da, haur eta nerabeen artean euskararen erabilera sustatzea helburu duten jarduerak antolatzen dituzuenontzako baliabidea. Udalek euskaraz hainbat jarduera eskaintzen dizkiegu adin txikikoei, baina euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egiten ahal dugu? Hor dago gakoa.

EUDELek udalerriek adierazitako behar bati erantzuna eman nahi diogu, eta gida praktikoa eta erabilgarria osatu nahi izan dugu. Udaleko edozein ataletako **teknikari-antolatzaileen** eskura jarri nahi ditugu euskararen erabilera modu egokian sustatzeko oinarri argiak, bai eta jarduerari jarraipena egiteko zein balorazioak egin ahal izateko irizpideak eta tresnak ere.

Gidaren lehen zatiak jarduera horien kudeaketari lotutako testuingurua azaltzen du, batez ere, **ordezkari politikoei** eta horrelako jarduerak sarritan antolatzen ez dutenei zuzendua.


Era berean, jarduera horiek kudeatzen dituzten **elkarte edo enpresei** begirako tresna ere bada. Izan ere, jarduerak bideratzeko lanean kontuan har ditzaketen oinarri, helburu, estrategia eta tresnak biltzen ditu gidak. Tresna praktikoa izan nahi du, jardueren antolaketan, jarraipenean eta ebaluazioan baliagarria izandadin. Horregatik enpresa edo elkarte kudeatzaileetako arduradunei eta hezitzaileei zuzendutako materiala jasota dago gidako eranskinetan.

Horrek guztiak emaitzak izan ditzan, udalaren eta hezitzaileen arteko **elkarlana** funtsezkoa da. Jardueraren planifikazioa alde aurretik adostu ondoren, jarraipenaren eta ebaluazioaren bitartez, erabilitako helburu eta estrategien emaitzak ikusgarriak izango dira.

**Hezitzaileen** lana ere nabarmendu behar dugu. Gure haur eta nerabeekin harreman zuzena dute, eta gaztetxoek garai zaugarri eta aldaketek betetakoan bizipen onak sortzea eta gustura sentiaraztea, euskara ahoan izanik, lan handia da. Hori dela eta, dinamika horiek kudeatzeko eta dinamizatzeko, baliabide batzuk bildu ditugu gidan, baita kudeaketa horretan lagungarriak izan daitezkeen eredu-adibide orokor batzuk ere.

Eta lana arintzearen, **tresna telematiko** xume bat sortu dugu. Euskararen erabilera sustatzeko helburuak eta estrategiak aukeratzeko eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko garaian, euskararen erabileraren bilakaera ikusiko da kudeaketa-tresna horren bitartez, modu erraz eta arin batean.

Orain udalon esku dago etorkizuneko udalerriak eraldatuko dituzten biztanleetan euskararen erabileran gaur eragitea.



# Dekalogoia

## Dekalogoia

### 1 Euskara sustatzea

Jarduera euskaraz eskaintzetik haratago, egoera babestuetan haur eta nerabeei euskara erabiltzen lagundu nahi zaien jarduerari begirako praktika onak dira.

### 2 Bizipen onak

Oinarri-oinarrizko abiapuntua da. Euskararen erabilera bizipen onekin lotzen badira eta estrategiak ondo erabiltzen badira, eraginkorrak izan daitezke erabilera bermatzeko.

### 3 Zeharkakotasuna

Udaletatik haur eta nerabeentzat eskaintzen diren edozein jarduera antolatuetarako baliagarria da gida, eta sail ezberdinetako teknikarientzat erabilgarri izatea bilatu da.

### 4 Udal teknikariei begira

Sortutakoa da, baina **jarduera kudeatzen duten enpresa edo elkarteentzat** baliagarria ere bada. Baita, baliabide osagarrien bidetik, jarduerak dinamizatzen dituzten hezitzaileentzat ere.

### 5 Elkarlana

Udal teknikari eta jardueren kudeatzaileen arteko elkarlana erraztea bilatzen da, hau da, bakoitzak bere ardurak ondo betetzea eta zailtasunak eta hobekuntzarako aukerak identifikatzea.

### 6 Planifikazioa

Estrategiak diagnosi batean oinarrituz eta helburu lorgarriekin lotuz planifikatzea erabileraren sustapena errazten du.

### 7 Jarraipena eta balorazioa

Euskararen erabilera sustatzeko egiten den lanari jarraipena egiteko modua azaltzen da. Eraginkortasuna, baliagarritasuna eta egokitasuna baloratzeko behar beharrezkoa.

### 8 Adibideak

Hasierako eduki teorikoan oinarritutako balizko egoera batzuen hainbat adibide jaso dira, ohikoak, ulergarriagoa izatearren eta lana erraztearren.

### 9 Baliabideak

Jardueren kudeatzaileei eta hezitzaileei erabilgarriak izan dakizkien baliabideak gehitu dira. Jarduera ezberdinekin lotutako estrategiak, hizkuntza-jolasak, dinamikak eta abar.

### 10 Tresna telematikoa

Jarraipena eta balorazioa modu argian eta errazean egiteko asmoz, baliabide telematiko bat prestatu da. Antolatzzaileen eta kudeatzaileen eskura dago [www.eudel.eus](http://www.eudel.eus) webgunean. Baliabide hori erabiltzeko eta balorazioak egiteko jarraibide eta aholkuak ere gehitu dira.

1.



**Sarrera**

Udaletatik haur eta nerabeentzat eskaintzen diren ekintza edota ekitaldi ugari euskaraz izan ohi dira: zinema, antzerkia, jaialdiak, aisialdiko jarduerak... Horiek behar-beharrezkoak dira haur eta nerabeei euskara hizkuntza bizi eta erakargarri gisa identifikatu dezaten. Baina, horretaz gain, euskaraz aritzera bultzatzea ere bada hainbat jardueraren helburua.

Euskararen erabilera sustatzea haurren eta nerabeen onurarako izango da, eta bi helburu hauek lortu nahi dira:

- **Eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukerak** izatea edo gune babestuek eskaintzea. Helburua da gaitasuna eskuratzea edozein egoera eta harremanetan euskaraz ere eroso aritzeko. Bide horretan, eskolak mugak ditu, eta gazteek euskara eskolaz kanpo erabiltzeko aukerak izan behar dituzte.

- **Euskararekiko bizipen eta harreman sendoak eskaintzea.** Hainbat egoera eta harremanetan euskara erabiliz gero, bizipenak eta erreferenteak izango dituzte, eta hori behar-beharrezkoa da haur eta nerabe askorentzat, euskara eskolarekin soilik lotu ez dezaten.

**Euskararen biziberritzea transbertsala** da eta beste helburu batzuekin batera landu daiteke. Euskararen erabilera sustatzeak ez du jardueren helburu bakarra izan behar, zeharkako lan-ildo garrantzitsuenetako bat baizik. Jarduera horien helburuak izan ohi dira aniztasuna, hezkidetzaz, norberarekiko eta inguruarekiko errespetua eta abar lantzea, eta euskararen erabilera sustatzea ere helburu esplizitua izan daiteke.

**Jarduera horietan euskara modu egokian sustatzea bilatzen da.** Helburua ez da jardueran zehar guztia euskaraz egitea edo euskaraz egitea derrigorrezkoa izatea. Aldiz, testuingurua eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, haur eta nerabeei euskara asko erabiltzen laguntzea bilatzen da, bai eta bide horretan euskarazko bizipen positiboak eta indartsuak izango dituztela bermatzea ere. **Haur eta nerabeen hizkuntza-ohiturak edo**

**jokabideak ez dira epaitu behar.** Benetako errealitatea zein den ikusi, eta, hortik abiatuta, helburu lorgarriak jarri behar dira.

Finean, bilatzen dena da euskara modu planifikatuan lantzea. Euskararen erabilera helburu zehatz eta lorgarriekin lotu behar da, eta estrategiak eta baliabideak helburu horiek eskuratzerantz bideratu. Era berean, jarraipena eta balorazioa egiteko, neurgailuak erabili behar dira. Euskaraz noiz ez duten egiten baino, hezitzailearen laguntzaz ohikoa baino euskara gehiago egitea noiz lortzen duten aztertu behar da.

**Abiapuntua hori izanik, gida honetan honako ezaugarri hauek** dituzten jarduerak hartu dira kontuan:

- **Euskaraz eskaintzetik haratago, jardueraren helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea dutenak.**

- **Zenbait saio dinamizatzeko jarduerak.** Jarduera horiek hezitzaile batek dinamizatzen ditu, eta talde edo pertsona bakoitzak zenbait saiotan parte hartzen du.

Ezaugarri horien barruan sartzen dira aisialdiko jarduerak (ludotekak, udalekuak, gaztelekuak...) eta eskola-orduz kanpo eskaintzen diren bestelako jarduerak (musika- eta dantza-eskolak, antzerkia, kirola eta abar), betiere euskararen erabilera sustatzea ere helburu baldin badute.

Proposatzen diren hainbat baliabide erabilgarriak izan daitezke beste eremu edo jarduera batzuetarako; honakoetarako, besteak beste:

- Jarduera puntualak edota taldekatzerik eskatzen ez dutenak: jaialdiak, haur parkeak eta abar.

- Udalak antolatzen ez dituen baina euskara sustatzea ere helburu baduten taldeen jarduerak: kirol-klubak, aisialdi-taldeak, kultura-jarduerak eta abar.

- Euskararen errefortzu programak: erabilera sustatzetik haratago, hizkuntza garatzea ere bilatzen duten aisialdiko programak.

2.



# **Euskararen erabilera sustatzea:**

jarduera euskaraz eskaintzea baino gehiago

## 2.1

### EUSKARAZ IZATETIK ERABILERA SUSTATZERAKO URRATSA

Hizkuntzaren normalizazioan **oinarrizkoa da udaletatik haur eta nerabeei begira antolatzen diren jardueretan euskarazko eskaintza zaintzea**, hiri eta herrietan euskararen presentzia areagotu eta jardueretan euskaraz normaltasunez parte hartu eta kontsumitu ahal izan dezaten.

Alabaina, **behar-beharrezkoak dira espresuki euskara sustatzea helburu duten jarduerak ere**. Zer esan nahi du horrek? Haur eta nerabeei

babesguneak eskaini nahi zaizkiela bideratu gabeko egoera batean erabiliko luketen baino euskara gehiago erabiltzen laguntzeko, edo, erabilera nahiko handia den kasuetan ere, horri eutsiko zaiola bermatzeko.

Beraz, jarduerak euskaraz eskaintzea oinarrizko abiapuntua da. Kasu horietan jarduerari ezaugarri bereziak eransten zaizkio, euskararen erabilera modu egoki eta eraginkorrean sustatzeko.

## 2.2

### GIZARTEAREN NORABIDE BEREAN

Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabe gehien-gehienak euskarazko ereduetan ikasten ari dira, eta hori guztiz oinarrizkoa da

elebitasunerako bidean. Euskararen ezagutza orokortzen ari da.

### MATRIKULAZIO DATUAK



	2001	2013	2024
<b>D eredua</b>	%41,2	%59,0	%68,9
<b>B eredua</b>	%21,0	%19,3	%15,9
<b>A eredua</b>	%37,2	%21,2	%15,2

\* Eustat. Eskola jardunaren estatistika.

### EUSKARAREN EZAGUTZA DATUAK: ELEBIDUNAK

	2001	2011	2021
<b>5-9 urte</b>	%65,92	%79,06	%80,89
<b>10-14 urte</b>	%65,54	%83,99	%90,48
<b>15-19 urte</b>	%56,26	%73,29	%87,64
<b>Orokorra</b>	%32,21	%36,44	%42,54

\* Eustat. Euskararen gaitasuna adinaren arabera

## 2.3

### HIZKUNTZAZ JABETZEKO GAKOAK

**Hizkuntza bat ondo bereganatzeko, erabilera da gako nagusia, eta, zenbait testuingurutan,** eskolak muga nabarmenak ditu erabilera hori bermatzeko. Horregatik, eskolaz kanpo ere euskara erabiltzeko aukera izateak elebitasunerako bidean laguntzen die haur eta nerabeei. **Helburua, euskara ikastea baino gehiago, benetako elebitasunera hurbiltzea izan beharko litzateke:** edozein egoera eta harremanetan euskaraz zein gaztelaniaz eroso aritzeko gaitasuna izatera iristea. Elebidun oso izatea abantaila da hainbat ikuspegitatik (soziala, kulturala, laborala...); eta, horretara iristeko, beharrezkoa da eskolaz kanpo euskara erabiltzeko benetako aukerak izatea.

Horretaz gain, garrantzitsua da euskaraz ikasten duten haur eta nerabeei euskarazko bizipenak eta erreferenteak izatea: euskararekin ere harreman indartsua izateak eragina izango du beraien jarrera eta jokabideetan. Are gehiago, hizkuntza-normalizazio prozesuan, ezinbestekoa da euskararen erabilera sustatzea. **Hizkuntza bat ala beste bat erabiltzea ez da aukera libre: hainbat faktorek baldintzatutako jokabidea izaten da.** Hori erakusten dute zenbait ikerketa eta argitalpenek; besteak beste, Soziolinguistika Klusterrak 2009an argitaratutako *Gazteen hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* izenekoak. **Faktore horien ondorioz, ohikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeen artean euskara askorik ez egitea,** eta, erabilera handitzeko bide horretan, euskara sustatzeko jarduera babestuak eskaintzeak asko laguntzen du hizkuntza bat ala beste bat benetan aukeratu ahal izateko.

## 2.4


### JARDUEREN EZAUGARRIAK

Eskolaz kanpoko jardueren ezaugarriek ahalbidetu egiten dute euskararen erabilera modu egokian sustatzea eta hizkuntzarekin harremana indartzea:

- Jarduera **hezitzaile batek** dinamizatu egiten du, eta **euskararen erabilera ere dinamizatu dezake.**
- Jardueretan zehar egoera eta harremanak ugariak eta askotarikoak dira (entsegu edo entrenamenduetan, ekintzetan, txangoetan...), eta horrek **euskara bizipen eta egoera positibo eta erakargarriekin lotzea ahalbidetu dezake.**

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da euskara sustatzea helburu duten jarduerak eskaintzea. Baina euskararen erabilera planifikatuta eta baliabide eta estrategia egokiekin sustatu

beharko litzateke, eta horixe da, hain zuzen ere, gida honen helburua: jarduerak dituzten bestelako helburuak kontuan izanda, eta parte-hartzaileek hizkuntzarekin duten harremana indartzea bilatzen dela kontuan hartuta, **euskara modu egokian eta eraginkorrean sustatzeko oinarriak eta strategiak aurkeztea, eta jarraipena egiteko irizpideak eta baliabideak eskaintzea.**



## 2.5 UDALEKO SAIL GUZTIETAN

Udaleko sailetatik haur eta nerabeei eskaintzen zaizkien jarduerak izaera hezitzailea izan ohi dute. Jarduera horiek ludikoak (aisialdi-jarduerak, ekitaldiak, jaialdiak...) edo didaktikoak izan daitezke (musika eskola, dantza eskola, kirola...). Guztietan balio batzuk zaintzen dira, eta helburu hezitzaileak ere izaten dituzte, besteak beste, genero ikuspegiari, aniztasunari edota ingurumenari lotutakoak. Euskararen erabilera sustatzea helburu duten jarduerak ere izaera hezitzailea dute, eta helburu horiek ere lantzen dituzte: osagarriak dira.

**Hainbat sailetatik eskaintzen diren eta izaera hezitzailea duten beste jardueretan; beraz, euskararen erabilera sustatzea izan daiteke helburuetako bat.** Izan ere, helburu hori ez da soilik euskara sailetatik eskainitako jardueren ardura. **Edozein sailetatik eskaintzen diren jardueretan helburu hori berori txertatu daiteke zeharka.**


Ohikoa izan da —orain arte, behintzat— euskara sustatzea helburu duten jarduerak sortzea eta horiek zeharkako beste helburu batzuekin lotzea, hainbat udaletan, horrela bideratu baitituzte udaleku irekiak, ludotekak, gaztelekuak eta abar. Hala ere, **eraginkorragoa, anitzagoa eta aberatsagoa litzateke euskara sustatzea helburu duten jarduerak sortzetik harago, egun dauden jardueretan euskara sustatzera iristea.** Hau da, udaleko edozein sailek antolatzen dituen jardueretan ohikoa izatea, jardueraren helburuen artean, euskararen erabileraren sustapena ezartzea, eta hori bera ondo bideratzeko lanketa egitea. Azken jarduera horien barruan sar daitezke kirolaren alorrekoak, musikakoak...

Zentzu horretan, udalerrietan lagungarria litzateke antolatzen diren jarduerak identifikatzea, eta horietako hizkuntza-egoera zein den zehaztea. Zeregin horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diagnosia egiteko tresna bat prest du. Tresna bera eta erabiltzeko azalpenak lotura honetan aurkitu daitezke:



**Eskola-orduz kanpoko jardueren hizkuntza egoera diagnostikatzeko tresna.**

3.



**Euskara modu  
egokian sustatzeko  
oinarriak  
eta estrategiak**

Euskara erabiltzea sustatzeko, ezinbestekoa da estrategia egokiak baliatzea: aisialdiko jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabeen jarreran eta portaeran positiboki eragin behar dugu, euskara gehiago erabil dezaten.

Horregatik, gida honetan jasotako estrategiak euskararen erabilera egoki eta eraginkorra sustatzera bideratuta daude.

## 3.1

### HEZITZAILEA, EUSKARAREN ERABILERAN BIDELAGUN

Euskararen erabilera egoki sustatzeko, egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar da. Horretaz gain, haur eta nerabeen erritmoak ere errespetatu behar dira. **Gainera, prozesu osoan zehar etengabeko laguntza ematea bermatu**

**behar da, eta, beraz, jardueraren hezitzaileek haur eta nerabeen bidelagun izan behar dute, euskararen erabileran.** Horretarako, komeni da honako irizpide hauek gogoan izanda aritzea:

- **Erabilera sustatzearen ardura jarduera dinamizatzen duen hezitzailearena da: berak lagundu behar die parte-hartzaileei euskara naturaltasunez eta eroso erabiltzen.**

- **Haur eta nerabeen hizkuntza-jokabideak ez dira epaitu behar. Hizkuntza batean ala bestean egitea ibilbide baten ondorioa da, eta testuinguru jakin batean gertatzen da.**

- **Erabilera sustatu ahal izateko, egoera zein den aztertu behar da, eta, horren arabera, helburu lorgarri eta progresiboak finkatu.**

- **Euskara bizipen positiboekin eta egoera erakargarriekin lotzea ere bilatzen da, baita euskarazko erreferenteak eskaintzea ere.**

Hori kontuan izan behar da strategiak aukeratzerakoan.



## 3.2

### ZAINDU BEHARREKO ALDERDIAK

- Jarduera bera euskararen babesgune izan dadin lortu behar da. Horretarako, **oinarri-oinarrizkoa da jardueran zehar hezitzaileek beren artean euskaraz egitea.**

- **Parte-hartzaileei ere, hezitzaileek euskaraz egin behar diete, beti.**

Esan bezala, jardueraren helburuetako bat erabilera sustatzea bada, ezinbestekoa da hezitzaileek euskaraz egitea, uneoro.

- **Garrantzia eman behar zaie lorpen txikiei.** Noiz egiten ez duten baino, nola laguntzen diegun eta euskara erabiltzea noiz lortzen duten behatu behar da.

- **Hezitzaileek haurrak eta nerabeak euskaraz eroso aritzea erraztu behar dute;** seguru senti daitezela, hizketan ari direnean. Horretarako, hezitzaileek denbora eta konfiantza eskaini behar dizkiete, eta gauzak azaldu.

- **Zerbait adierazteko zailtasunak dituztenean ere, laguntza eskaini beharko diete haur eta nerabeei;** ereduak eman eta errepikatzeko aukera eskaini, adibidez.

- **Errefortzu positiboak garrantzitsuak dira,** euskara bizipen eta sentsazio positiboekin lotzeko bide eraginkorra dira eta.

## 3.3

### EKIDIN BEHARREKO ALDERDIAK

- *Egin euskaraz!* moduko esaldiak erabiltzea ez da egokia: ez zaie kargu hartu behar euskaraz egiten ez dutenean, eta ez ditugu errudun sentiarazi behar. **Zigorak eta mehatxuak ere ez dira erabili behar.**

- **Komunikazioari eman behar zaio lehentasuna,** ez zuzentasunari. Lortu behar da laguntza ematea, euskara asko eta gustura erabili dezaten. Hori izango da gaitasuna hobetzeko bidea.

- Euskara gehiago edo gutxiago erabiltzeak, edo euskaraz eroso edo zailtasunekin egiteak ez ditu euskaradun hobeak edo txarragoak egiten. **Eleaniztasunera begirako ibilbide bat egiten ari dira,** eta horretan lagundu behar diegu.



# 3.4

## ESTRATEGIAK ETA JARRAIPENA PLANIFIKATZEA



**Diagnostika.** Euskararen erabilerari dagokionez, abiapuntuko egoera zein den aztertu behar da, helburuak ondo aukeratu ahal izateko.

**Helburuak.** Helburu lorgarriak finkatu behar dira, eta parte-hartzaileen eta jardueraren ezaugarrietara ondo egokituak, euskara modu egokian sustatu ahal izateko.

**Estrategiak.** Helburuekin ondo lotutako estrategiak hautatu behar dira, erabilera modu eraginkorrean sustatzeko.


**Plangintza.** Hautatzen diren estrategia horiek programazioarekin lotu behar dira: noiz, nork eta nola erabiliko dituen zehaztu behar da.

**Jarraipena.** Zehaztutako helburu eta estrategien jarraipena egin behar da, aurreikusitako moduan erabiltzen ote diren aztertu, eta lorpenak edota zailtasunak identifikatu.

**Balorazioa.** Egindako lan guztia baloratu egin behar da. Euskararen erabilerak izan duen bilakaera ikusi, eta, bereziki, zer eta nola egin den ebaluatu.

*Atal horiek pausoz pauso eta xehetasunez azaltzen dira gida honen eranskinetan:*

4.



**Udaletako  
teknikariak,  
gidari**

## Beharrizana eta onespina

Jarduera bideratu aurretik beharrianak ondo identifikatu eta arduradun politikoaren onspena eskuratu.



## Lizitazio edo deialdiak

Helburua argi azaldu eta lizitatzaileri zehaztasuna eskatu.



## Jarraipena

Jarraipena egin. Aurretik ondo zehaztu nola egingo den.




## Komunikazioak eta izen-emateak

Euskararen erabilera sustatzea helburuetako bat dela argi azaldu.



## Balorazioa

Balorazio zehatza eskatu. Abiapuntuko diagnosis, amaierako egoera eta lanketa nola egin den.



*Kontuan izan bide hau egiteko sortu den baliabidea*

**Udalek antolatzen dituzten jarduerak izanik, teknikarien ardura da lanaren jarraipena egitea, bai eta lan hori modu egokian eta eraginkorrean egin dadin zaintzea eta gidatzea ere.**

Kasu askotan, jarduerak enpresa edo elkarte batek kudeatuko ditu, baina udal-jarduerak dira berdin-berdin, eta, ondorioz, udalak zehaztu beharko ditu helburu orokorrak edota zaindu nahi diren balioak. Hartara, jarduera diseinatu eta antolatzerakoan, ondo zehaztu beharko litzateke zein diren helburuak eta nola bideratuko den.

## **1. Jardueraren beharrizana identifikatu.**

Udal planean jasota dagoelako edo bestelako beharrizanak sortzen direlako, udalak herritarrei eskaini beharreko zerbitzua kontratu bidez gauzatu ohi da. Horretarako, dagokion ataleko teknikariak beharrizanen txostena idazten du, zerbitzu hori kanpoko erakunde batek eman dezan udalaren izenean, kontratu bitartez. Beraz, zerbitzuaren helburu nagusietako bat euskararen erabilera sustatzea bada, txosten horretan arrazoiak, helburuak eta egitekoak zehaztu beharko dira.

## **2. Arduradun politikoaren onespena eskuratu.**

Behin euskararen erabilera sustatzeko beharrizana identifikatuta eta jardueraren helburuak zehaztuta, udaleko ataleko arduradun politikoari arrazoiak zabalago eskainiko zaizkio. Era berean, euskararen erabileraren sustapenaren baitan landuko diren helburu zehatzak argi azaldu beharko dira, eta horretarako erabiliko den metodologiari buruzko argibideak eskaini. Gida honetako 2. atalean, informazio lagungarria dago.

## **3. Lizitazio edo deialdietan eskakizunak ondo zehaztu.**

Euskararen erabilera sustatzea (ere) helburu dela argi jarri. Proposamenen balorazioa egiterakoan, garrantzi handia eman zehaztasun mailari: diagnostia nola egingo den, eta helburu zehatzak eta neurgailuak zeintzuk izango diren. Gidaren erreferentzia ere eman daiteke, eta erabiltzera edo horren arabera lan egitera gonbidatu. Hala ere, egokia izan daiteke elkarte edo enpresak ere beste modu batera aurkeztea, proposamena ondo landuta baldin badago.

## **4. Komunikazioan eta izen-emateetan argi azaldu.**

Jardueraren berri ematean eta izen-emateak egiterakoan, argi azaldu euskararen erabilera sustatzea helburuetako bat dela. Garrantzitsua da parte-hartzaileek eta gurasoek hori jakitea. Are gehiago: aukera ikusiz gero, oso aproposa litzateke familiei elkarlana proposatzea eta etxetik nolako mezuak eman ditzaketan aurkeztea.



## 5. Jarraipena egin.

- Jarduera enpresa edo elkarte batek aurrera eramane behar badu, jarraipena egiteko zein tresna erabiliko diren aurretik ondo zehaztu, baita nola egingo den ere (kronograma eta ardura banaketa).

- Jarraipena egin ahal izateko, lehenik eta behin, egoeraren azterketa edo diagnosi bat eskatu, horren arabera zein helburu zehaztu diren argitu eta plangintzan nola txertatu diren behatu. Hortik aurrera eta, adostutako antolaketaren arabera, lanketa horren jarraipena egin.

- Udalaren eta jarduera burutuko duen edo duten koordinatzaile edota hezitzaileen arteko komunikazioa ezinbestekoa izango da, batez ere, enpresari edo elkarteari lana egokitzen zaion unetik aurrera, helburuak finkatzeko eta jarraipena eta ebaluazioa nola egingo den zehazteko.

- Era berean, udalak aintzat hartu beharko du haur eta nerabeekin harreman zuzena izango duten hezitzaileen lana, horiek izango baitira jardueraren ardatza eta euskararen erabileran eragingo dutenak.

## 6. Jarduera egoki baloratu.

Amaierako balorazioa zehatza izatea eskatu. Hasierako diagnosa kontuan hartuta, zer egin den ondo ikusi behar da, eta amaierako diagnosa zein den ere agertu behar da. Hori izango da balorazio kualitatibo egoki baten oinarria.


*Hori guztia modu errazean egiteko, baliabide bat dago gida honetan, eta udalen esku dago:*

5.



**Jardueren  
kudeatzaileak  
bidelagun**

## Jardueraren DISEINUAN ETA ANTOLAKETAN jarduera kudeatzen duten elkarte edo enpresek zaindu beharrekoak



## Jardueraren JARRAIPENEAN ETA BALORAZIOETAN jarduera kudeatzen duten elkarte edo enpresek zaindu beharrekoak



# Jarduerak kudeatzen dituzten enpresa edota elkarteak programen helburuak lortzen bidelagun izan behar dute.

## **Diseinua eta antolaketa**

### **Zer eta nola egingo den argi azaldu.**

Programazioan euskararen erabilera sustatzeko estrategiak txertatu behar dituzte. Programazioan argi ikusi behar da zein diren txertatutako estrategia eta zein helburu lortzera bideratuta dauden. Horretarako, eta eranskinetako azalpenak lagungarriak dira.

### **Komunikazio eta izen-emateetan helburuak eta oinarriak zaindu.**

Erabilera sustatzera begirako oinarriak kontuan izan behar dituzte, eta modu argian transmititu, programaren oinarrien norabide berean.

### **Hezitzaileen profila eta formazioa bermatu.**

Jarduera dinamizatzeko behar duten formazioaz gain (arloarekin lotutako hezitzaile formazioa), euskara sustatzeko eta euskaraz aritzeko gaitasun egokia behar dute, eta erabilera sustatzeko jarrera aktiboa eta positiboa eskatu behar zaie.

### **Hezitzaileei betebeharrak, oinarriak eta estrategiak transmititu.**

Hezitzaileek euskara sustatu behar dute eta, horretarako, oinarri-oinarrizkoa da jardueran zehar hezitzaileen artean euskaraz egitea. Horretaz gain, erabilera sustatzeko jarrera aktiboa izan behar dute, eta erabilera sustatzeko estrategia eta baliabide egokiak ezagutu eta erabili behar dituzte. Enpresa eta elkarteek arduratu behar dute hau bermatzeaz, edo, zailtasunak badituzte, hori jakinarazi eta laguntza eskatu behar dute. eranskinean hainbat jardueratara egokitutako hainbat baliabideren loturak daude.

**Proposamen orokor edo asmo onetatik haratago, lanketa antolatu eta zehatzak egin, zehaztu eta bideratu behar dituzte.**

## **Jarraipena**

**Jarraipena nola egingo den programa hasi aurretik zehaztu eta adostu behar da.**

Gida honekin batera baliabide bat sortu da helburu horrekin ( eranskina). Jarraipena egiteko informazioa hezitzaileek helarazi beharko dute, eta programa kudeatzen duen enpresen edo elkarten ardura izango da informazio hori ondo jasotzea eta jarraipen eta balorazioetan erabiltzea. Egiten den lana ikusteko eta baloratzeko, ezinbestekoa da jarraipena, eta argi azaldu eta betetzeko eskatu behar zaie elkarte edo enpresei.

## **Balorazioa**

**Jardueraren balorazioan garrantzi handiagoa eman behar zaio egin den lana ondo ulertzeari eta ikusteari euskararen erabileran izandako lorpenei baino.**

Lorpen horiek, hainbat baldintzaren arabera, aldakorrak izan daitezke (parte hartzaileen artean aldaketak egotea jardueran zehar, adibidez), baina programaren egokitasuna eta eraginkortasuna egindako lan horren arabera baloratu ahal izango da.



6.



**Eranskinak**

# 6.1

## JARDUERA AURRERA ERAMATERAKOAN KOORDINATZAILE ETA HEZITZAILEEK ZAINDU BEHARREKO PROZEDURAK

Ondorengo orriotan prozedura zehatz bat aurkezten da, euskararen erabilera sustatzea helburu duten programetan helburuak jartzeko, estrategiak helburuekin lotzeko eta

planifikaziorako eta balorazioetarako. Honako hau edozein udaletan erabiltzeko eredu bat da, baina beste eredu batzuk ere egokiak izan daitezke.

### 6.1.1

#### DIAGNOSIA

Haur eta nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko programetan, helburu egoki eta lorgarriak jartzeko lehen urratsa da jardueraren abiapuntuan euskararen erabilera nolakoa den ikustea.

Galdera hauei erantzuteak horretan laguntzen du:

• **Parte hartzaileen arteko harremana. Beraien kabuz euskaraz egiten dute beraien artean?**

• **Parte hartzaileen arteko harremana. Hezitzaileok modu aktiboan eragiten duzuenean, beraien artean euskaraz egiten dute?**

• **Parte hartzaileek hezitzaileokin. Parte hartzaileek hezitzaileoi euskaraz egiten dizuete?**

Erantzunetan abiapuntuko egoera zein den ikusi ahal izango da, eta horrek helburuak ondo zehaztea erraztuko du.

### 6.1.2

#### HELBURUAK

Helburu lorgarriak jarri behar dira, euskararen erabilera modu egokian eta eraginkorrean sustatzeko. Diagnosiko galderen erantzunetatik zehaztu daitezke helburu horiek:

• **Egoera:** parte hartzaile guztiek ez diote hezitzaileari euskaraz egiten, edo ez beti.

**A helburua:**  
**Parte hartzaileek hezitzailearekin euskaraz egitea.**

• **Egoera:** beraien artean ez dute euskaraz egiten edo hainbatek ez dute egiten. Hezitzaileak modu aktiboan elkarrizketetan parte hartzen duenean lor dezake.

**B helburua:**  
**Parte hartzaileen artean euskaraz egitea hezitzailearen eraginez.**

• **Egoera:** beraien artean erdararako joera dute edo gutxitan egiten dute euskaraz. Jarduera antolatu edo bideratuetan lor daiteke euskaraz egitea.

**C helburua:**  
**Parte hartzaileen artean euskaraz egitea egoera antolatu edo babestuetan.**

• **Egoera:** beraien artean guztiek edo gehienek euskaraz egiten dute.

**D helburua:**  
**Parte hartzaileen artean beraien kabuz euskaraz egitea.**

Helburuak lantzerakoan honakoak izan behar dira kontuan:

- **Oinarrizkoa da jardueran zehar hezitzaileen artean euskaraz egitea eta hezitzaileek partaideei beti euskaraz egitea.** Hori betetzen ez bada, ezinezkoa da erabilera sustatzea.
- **Lorpen txikiei garrantzia eman.** Noiz ez duten egiten baino gehiago, zerk laguntzen dien eta helburua noiz lortzen den behatu behar da.

- **Helburu bat edo bi aukeratu behar dira.** Lehen helburua aukeratzeko den kasuetan beste bat hartzea ere egokia izan daiteke; adibidez, hezitzailearekin beti euskaraz egiten ez dutenak tartean badaude, lehen helburutik abiatu behar da. Baina, egoera horretan daudenak gutxi badira, bigarren helburu bat ezartzea ere egokia izan daiteke.

## 6.1.3

### ESTRATEGIAK

#### 6.1.3.1

#### GINARRIZKO ESTRATEGIA: HEZITZAILE BERRITSUAK

Behin helburuak aukeratuta, hurrengo urratsa estrategia aukeratzea da. Honako oinarrizko estrategia da:



##### Oinarrizko estrategia: **Hezitzaile Berritsuak izatea**

Hezitzaileak modu aktiboan eragin behar du: elkarrizketak sortu, beraien elkarrizketetan parte hartu, hitz egitea beharrezkoa den egoerak bilatu... Hezitzaile Berritsuak giro egokia sortzen eta hizkuntzaren presentzia bermatzen laguntzen du. Horretan ari denean honako jokabideak izan beharko lituzke:



##### **Laguntza eskaini.**

Zailtasunak dituenari lagundu egingo dio euskaraz aritu dadin.

Adibidez: "Nik lagunduko dizut, gainera. Gustatzen zait ahalegintzen zarenean, eta prest nago. Ea ba..." edo "Ni ere zuekin jolastuko naiz. Norbaiti kosta egiten bazaio, lasai, denon artean lagunduko diogu."



##### **Ahalegina eskatu, mezu egokiak erabiliz.**

Hezitzaileak argi transmitituko die gure helburua eta nahia euskara erabiltzen laguntzea dela, eta beraien ere horretan laguntzea nahiko lukeela.

Adibidez: "Hori esango didazu euskaraz, ezta? Ziur badakizula euskaraz esaten." edo, "Ederki ari zarete baina orain pixka batean behintzat euskaraz egingo dugu. Jolasetan askotan aritu gara horrela eta ziur ez zaizuela asko kostatuko."



##### **Errefortzu positiboak eman.**

Zailtasunak dituenak euskaraz adierazteko ahalegina egiten duenean edota beraien artean euskaraz egitea lortuz gero, positiboki baloratuko du, nahiz eta horretarako hezitzailearen eragina beharrezkoa izan.

Adibidez: "Ikusten! Erraz esan didazu. Gero eta errazago egiten duzu, Zorionak!" edo "Primeran! Oso pozik nago. Banekien nik erraz egingo zenuela"

### 6.1.3.2

#### ESTRATEGIA ETA TRESNA OSAGARRIAK

Oinarrizko estrategiak beste estrategia batzuekin lotu eta osatu behar dira:

- **Hezitzaile Berritsu jokabidea eguneroko egoerekin lotu.**

Jarduera bakoitzak une eta gune esanguratsu batzuk izaten ditu; honakoak, besteak beste: harrera eta agurra, atal dinamizatuak eta jarduera librea. Jardueraren arabera, batzuek edo besteek tarte esanguratsuagoa izaten dute. Hezitzaile Berritsu aritzea egoera horiekin lotu daiteke. Adibidez, harrera eta agurra banakoekin elkarrizketak sortzeko oso aproposak dira. Era berean, jarduera libreak beraiekin hizketan aritzeko eta beraien arteko elkarrizketetan eragiteko aproposak izan daitezke.

- **Hizkuntza erabiltzea eskatzen duten jarduerak eta horiekin lotutako prozedurak.**

Edozein jardueratan hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa den egoera edo dinamikak txertatu daitezke. Adibidez, elkarren artean zerbait adostu behar dute, jardueran zehar egiten duten zerbait besteei azaldu behar diete eta abar. Une horiek oso baliagarriak dira elkarren artean euskaraz egin dezaten laguntzeko.

- **Hizkuntza-jolasak.**

Esamolde edo elkarrizketak dituzten jolas eta dinamikak dira. Jolasak edo dinamikak hizkuntza txertatua du, eta abiapuntuko erabilera horrek erraztu dezake beraien artean euskaraz egitea. Aisialdian oso ohikoak dira horrelako jolasak, baina jardueraren ezaugarriak eta edukiak egokituta, kirolean, musikan edota beste edozein jardueratan ere erraz txertatu daitezke.

---

### 6.1.3.3

#### ESTRATEGIA EDO BALIABIDE LAGUNGARRIAK

Haur eta nerabeentzako jardueretan, **euskararen erabilera sustatzeko, beste baliabide batzuk ere lagungarriak izan daitezke.** Oinarrian aurrez aurkeztutako estrategiak kokatzen dira eta, ondo erabiliz gero, lana egokia izango da. Aldiz, ondorengo hauek aurreko horiek indartzeko eta osatzeko erabil daitezke, baina ez ordezkatzeko.

- **Motibazioa bultzatzeko jarduerak.**

Parte hartzaileen euskararekiko motibazioa indartzen saiatzea lagungarria izan daiteke,

baina kontuan hartuta motibazio indartsuena jardueretan gustura aritzea eta bizipen horiek euskararekin lotzea dela. Motibazioa lantze aldera, ahalduntzea edo hausnarketa eragitea oinarri duten jarduerak egin daitezke, baina, batez ere, izaera ludikoa duten eta euskararekin harremana indartzeko helburua duten jarduerak; adibidez, erreferenteak eskaintzekoak, euskal kultura transmititzekoak, euskarazko talde eta giroekin harremana egitekoak eta abar. Gida honetako puntu motibazioan eragitera bideratutako baliabide baten erreferentzia eta lotura dago.



## • Musikaren erabilera

### Abestea.

Euskarazko abestiak euskara erabiltzen laguntzeko tresna indartsuak dira.

### Entzuteko musika.

Jardueran zehar musika erabiltzen bada (girotzeko edo jardueraren dinamizazioan laguntzeko), euskarak leku duina izatea zaindu beharko litzateke, hau da, euskarak leku handia izatea eta ezaugarri ezberdinetako musika erabiltzea (estilo ezberdinetakoak, gaur egungoak, tradizionalak eta abar).



## • Parte hartzaileekiko idatzizko harremana.

Parte hartzaileekin idatzizko harremana ere erabiltzen bada, watsap bidezkoa, adibidez, euskara hutsean izatea lortu behar da. Zentzu horretan, hezitzaileak beti euskaraz egin behar du eta parte hartzaileei ere euskaraz egiteko eskatu. Kasu horretan, hizkuntzaren zuzentasunari baino, erabilerari arreta jartzea da egokiena.

## • Ikus-entzunezkoak.

Jardueran zehar ikus-entzunezkoak erabiltzen badira (pelikulak, bideo laburrak...), euskararen presentzia zaintzea ezinbestekoa izango da.

## • Hizkuntza-paisaia.

Jarduera egiten den espazioan kartelak edo bestelako euskarri idatziak jartzen badira, euskara hutsean izatea edo nagusiki euskaraz izatea garrantzitsua da erabilera indartzeko eta testuingurua egokitzeko.

## 6.14

### PLANIFIKATZEA

**Proposatzen diren estrategiak helburuekin lotu eta jardueraren programazioan txertatu behar dira, jarraipena egin ahal izateko.**

Euskararen erabileraren abiapuntuko egoera zein den zehaztuta, abiapuntu hori eta jardueraren ezaugarriak kontuan hartuz, helburu lorgarriak jarri behar dira eta helburu horiek lantzeko estrategia egokiak aukeratu. Baina horrek ez du bermatzen lanketa hori egingo denik, ezta nola egingo den ere. Arrakasta izateak planifikatzea eskatzen du. Estrategiak programazioan txertatu behar dira, jardueraren zein unetan erabiliko diren argitu eta prozedura edo baliabideak zein izango diren zehaztu.

## 6.15

### JARRAIPENA

**Koordinatzaileak edo jarduera kudeatzen duen enpresa edo elkarteko arduradunak lanketa horri jarraipena egin behar dio.** Hezitzaileek aurreikusitako estrategiak erabiltzen dituztela eta aurreikusitako oinarrien arabera egiten dutela zaindu behar du.

**Udalak ere jarraipena egin behar du,** eta jarraipen saioetan edo tarteko ebaluazioetan, euskararen erabilera indartzeko egiten den ahalegin hori ere kontuan eduki behar du.

# 6.1.6

## BALORAZIOA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko balorazioa aurretik zehaztutakoaren arabera egin behar da. Parte hartzaileen hizkuntza-ohiturak deskribatu behar dira, eta zehaztutako helburu eta estrategiei buruzko azalpen eta balorazioak txertatu.

Atal hau oso kontuan izatea komeni da. Jardueraren helburuak betetzen diren, hartu diren erabakiak egokiak diren, aurrera begira aldaketak edo berrikuntzak egin behar diren eta abar erabakitzeko, ezinbestekoa izango da aurretik erabileraren sustapena planifikatzea, eta balorazioa hartutako erabakien arabera egitea.

# 6.2 JARDUERA BATEN PROZEDURAREN ADIBIDEA: UDALEKU IREKIAK

## DIAGNOSIA

Zein da jardueraren hasieran euskararen erabileraren egoera?

	Bai	Gehienek bai, baina batzuek ez edo ez beti	Batzuek bai, baina gehienek ez edo ez beti	Ez
Parte hartzaileak hezitzaileekin. Parte hartzaileek euskaraz egiten dizuete?		●		

	Bai	Gehienek bai, baina batzuek ez edo ez beti	Batzuek bai, baina gehienek ez edo ez beti	Ez
Parte hartzaileen arteko harremana. Hezitzaileek modu aktiboan eraginez gero, elkarrekin euskaraz egiten dute?			●	

	Bai	Batzuek bai, baina beste batzuek ez	Ez
Parte hartzaileen arteko harremana. Beraien kabuz euskaraz egiten dute elkarrekin?			●

Erantzun aukerak

**Ondorioak:**

- Parte hartzaile gehienek hezitzaileekin euskaraz egiten dute, baina ez guztiek edo ez beti.
- Parte hartzaileen artean ez dute euskaraz egiten beraien kabuz. Hezitzailearen eragina aktiboa denean batzuek egiten dute, baina gehienek ez edo ez beti.



**HELBURUA**

Parte hartzaileek hezitzaileekin euskaraz egitea: gehienek egiten dute, baina ez guztiek. Hezitzaileekin euskaraz egitea lortu behar da, beraien artean euskaraz ere egin dezaten laguntzeko.



**ESTRATEGIA**

Hezitzaile Berritsu moduan banakoekin elkarrizketa asko sortzea, gure helburua eta nahia azaltzea, laguntza eskaintzea eta ahalegina baloratzea.



**PLANIFIKAZIOA**

Jardueraren uneak eta guneak baliatzea eragiteko: harrera, agurra eta tarte libreak (jarduera dinamizaturik ez duten tarteak). Saio bakoitzean gutxienez 6 elkarrizketa.



**JARRAIPENA**

Aurreikusi moduan eragin duzue?

**Bai**    **Batzuetan bai**    **Ez**

<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
----------------------------------	-----------------------	-----------------------

Modu aktiboan eragiten duzuenean lortzen al duzue parte hartzaileek hezitzaileekin euskaraz egitea?

**Bai,**    **Bai,**    **Ez**  
beti edo gehienetan    baina soilik batzuetan

<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
----------------------------------	-----------------------	-----------------------



**HELBURUA**

Hezitzailearen eraginez beraien artean euskaraz egitea: hezitzaileen eraginez batzuek euskaraz egiten dute, baina beste hainbatek ez. Gutxienez denbora tarte edo egoera babestu batzuetan euskaraz egiteko laguntza behar dute.



**ESTRATEGIA**

Hizkuntza-jolasak edo hizkuntza txertatua duten dinamikak erabiltzea, beraien artean euskaraz egin dezaten errazteko.



**PLANIFIKAZIOA**

Egunero bi hizkuntza-jolas edo hizkuntza txertatua duten bi jarduera egingo dira. Lehenengoa saioaren hasieran eta bigarrena hamaiketakoaren ondoren. Tarte horietan, gainera, hezitzaileek elkarrizketetan asko hartuko dute parte.



**JARRAIPENA**

Aurreikusi moduan eragin duzue?

**Bai**    **Batzuetan bai**    **Ez**

<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
----------------------------------	-----------------------	-----------------------

Modu aktiboan eragiten duzuenean lortzen al duzue zuen laguntzaz beraien artean euskaraz egitea?


**Bai,**    **Bai,**    **Ez**  
beti edo gehienetan    baina soilik batzuetan


<input type="radio"/>	<input checked="" type="radio"/>	<input type="radio"/>
-----------------------	----------------------------------	-----------------------


## BALORAZIOA

Zein da jardueraren amaieran euskararen erabileraren egoera?

	<b>Bai</b>	<b>Gehienek bai,</b> <small>baina batzuek ez edo ez beti</small>	<b>Batzuek bai,</b> <small>baina gehienek ez edo ez beti</small>	<b>Ez</b>
Parte hartzaileak hezitzaileekin. Parte hartzaileek euskaraz egiten dizuete?				

	<b>Bai</b>	<b>Gehienek bai,</b> <small>baina batzuek ez edo ez beti</small>	<b>Batzuek bai,</b> <small>baina gehienek ez edo ez beti</small>	<b>Ez</b>
Parte hartzaileen arteko harremana. Hezitzaileek modu aktiboan eragiten baduzue, elkarrekin euskaraz egiten dute?				

	<b>Bai</b>	<b>Batzuek bai,</b> <small>baina beste batzuek ez</small>	<b>Ez</b>
Parte hartzaileen arteko harremana. Beraien kabuz euskara egiten dute elkarrekin?			

	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>
Ikusten da alderik hasierako eta amaierako erabileraren artean?		

## Ondorioak:

- **Amaierako diagnosis.** Parte hartzaileek hezitzaileekin euskaraz egiten dute. Parte hartzaileek beraien kabuz ez dute euskaraz egiten. Hezitzaileen eragina aktiboa denean eta planifikatutako jarduerak erabiltzen direnean hainbatek euskaraz egiten dute.
- **Estrategiei buruzko ebaluazioa.** Estrategiak aurreikusi moduan erabili dira. Hezitzaileek aurreikusitako elkarrizketak sortu dituzte eta prozedura zaindu dute. Saioetan aurrera eramango diren jarduerak ere planifikatu dira eta gehien-gehienak egin dira.
- **Laburpena.** Euskararen erabileran aurrera pausoak eman dira. Hezitzaileekin harremanean euskara finkatu da eta hainbatetan lortu da gazteek elkarrekin euskaraz egiten laguntzea. Hezitzaileak oso modu aktiboan eragin behar du horretarako, baina parte hartzaileek ondo pasatzen duten bitartean, beste egoera batzuetan erabiliko luketen baino euskara gehiago erabiltzea lortzen da. Nahiko intentsitate handiko jarduera izanik (egunean 5 ordu), baina nahiko iraupen laburrekoa (15 egun), egindako lanaren balorazioa eta lortutako ondorioak oso positiboak dira.

## 6.3 JARDUERETARA EGOKITUTAKO ESTRATEGIA-ADIBIDEAK

Ondorengo orrietan jardueren ezaugarrietara egokitutako adibide batzuk daude. Horien helburua da estrategiak jardueretan nola txertatu daitezkeen erakustea.



**Helburua:** Parte hartzaileek hezitzaileekin euskaraz egitea.

**Estrategia:** Hezitzaile Berritsuak izatea eta egunero hainbat elkarrizketa sortzea, prozedura zainduz.

**Prozedura:** hezitzaileekin euskaraz egiten ez dutenei ahalegina eskatu mezua zainduz, eta laguntza eskaini galdera erduekin jokatuz. (Prozeduraren azalpena ikus daiteke gida honetako puntuan)

Egunero, nahita eta prozedura ondo zainduz, gutxienez 5 elkarrizketa sortu.

Aurreikusi zein egoera erabiliko diren elkarrizketak sortzeko. Adibidez:

- Udaleku irekietan: harrera egitean, hamaiketakoaren tartean, eguneko ekintzen artean edota saioaren amaiera aldera eta abar.

- Udaleku Itxietan: egunaren hasieran, jatorduetan, eguneko ekintzen artean, oheratzerakoan eta abar.

- Ludotekan eta gaztelekuan: harreran, jolas librean, eguneko ekintzen artean, agurrean eta abar.

- Antzerkian, dantzan edota musika eskolan: harreran, tarte gidatuen artean, agurrean eta abar.

**Kontuan hartzekoak:** elkarrizketak euskaraz aritzeko erraztasunik ez dutenekin zein badutenekin sortu daitezke. Batzuen kasuan euskara erabiltzen laguntzeko eta beste batzuen kasuan euskaraz eroso aritzeko tarteari eskaintzeko.

**Helburua:** Parte hartzaileek euskaraz egitea hezitzaileen eraginaz.

**Estrategia:** Hizkuntza erabiltzea ezinbesteko diren jarduerak baliatzea.



Dinamika adibideak:

## UDALEKU IREKIAK

### “Pareko” izeneko dinamika:

Kideetako batek, marrazki bat edo irudi bat hartu eta ikusten duen guztia deskribatu beharko du. Bitartean, gainontzekoek irudi hori marraztu behar dute.

Hezitzailea lehenengoa izango da egiten. Gero beste batzuk gonbidatuko ditu egitera.

## GAZTELEKUA

### “Zuri” dinamika:

Borobil batean egongo gara eserita. Batek besteei hitz bat esango die belarrira. Guztiek entzungo dute hitz bera 2k edo 3k izan ezik; horiei “Zuria” hitza esango die.

Denek hitza entzun dutenean hasiko da jolasa. Banan-banan eta ordenean, hitz horrekin lotura duen beste hitz bat esan beharko dute. Zuria hitza entzun dutenek disimulatu beharko dute eta zeren inguruan hitz egiten ari diren asmatzen joan, berak hitz bat esan ahal izateko.

Denok hitz bat esandakoan, euren arteko eztabaida hasiko da, eta zuriak nortzuk diren asmatu beharko dute.

### HIZKUNTZA ERRUTINA:

-Nik uste dut .... dela, .... esan/egin duelako.

-Ni ez naiz. ....lako.

## LUDETEKA

### “Tabu” jolasa:

Azalpen bat emango dute, baina ezingo dituzte hitz batzuk erabili.

Adibidez: Barakaldotik Bilbora autobusez nola joan. Ezingo dute, autobusa, geltokia eta Barakaldo hitzak erabili. Besteek azalpena entzun ostean zertaz ari den asmatuko dute.

## UDALEKU ITXIAK

### “Sorgina, Iratxoa eta Herensugea” jolasa:

Jokalariak bi taldetan banatuko dira eta bi ilaratan egongo dira, bata besteari begira. Prest daudenean, taldekideak elkartu eta iratxoak, sorginak edo herensugeak izango diren erabaki beharko dute. Behin erabakita, berriz ilaran jarri, eta denek batera ozenki: “Iratxo, herensuge edo sorgin: zeinek alde egin?”. Momentu horretan talde osoak aukeratutako pertsonaiaren keinua egin beharko du (Sorginak: lapiko batean burruntzalia mugitzen ariko balira bezala. Iratxoak: eskuak aurrean eta behatzak mugitzen, kilimak egiten egongo balira bezala. Herensugea: eskuak altxatuta, Marijaia bezala). Keinua egin eta gero, galdu dutenek alboko marrara iristen saiatu behar dute, eta irabazi dutenek horiek harrapatzen saiatu. Sorginak- iratxoak jan Iratxoak- kilimak herensugeari Herensugeak- sorginak jan.



## DANTZA

### “Giza eskulturak” dinamika:

Hirunakajarriko dira. Lehenengoak eskultura ikusi eta deskribatuko du. Bigarrenak lehenengoaren deskribapena entzungo du eta hirugarrenari zelan kokatu behar den azalduko dio. Hirugarrenak bigarrenak esaten diona egin behar du, eta eskulturaren posea “kopiatu”.

## MUSIKA ESKOLA



### “Bikote ibiltaria” dinamika:

Bi borobil egingo ditugu. Kanpoko borobilean musika instrumentuak egongo dira eta barrukoan musika instrumentu horien definizioa.

Ikasle bakoitzak papertxo bat hartuko du eta bere borobilean kokatuko da. Musika jarriko dugu eta ibiltzen hasiko dira, kontrako noranzkoan. Musika gelditzen denean, aurrean dutenarekin hitz egingo dute eta asmatu behar dute ea bikote diren ala ez. Bikotea badira, borobiletatik irtengo dira, ez badira, jolasean jarraituko dute.

## ANTZERKIA

### “Itzultzailea” dinamika:

Pertsona batek asmatutako hizkuntza batean hitz egin beharko du, konferentzia batean egongo balitz bezala. Alboan beste pertsona bat egongo da, berak “esaten duen hori” itzultzen.

Asmatutako hizkuntzan hitz egiten duenak zerbait zelan egiten den azalduko du. Egiteko hori berak asmatu dezake; lokarriak lotu, klasetik zelan irten, dutxa zelan hartu, ...

**Helburua:** Parte hartzaileen artean euskaraz egitea egoera antolatu edo babestuetan.

**Estrategia:** Hizkuntza erabiltzea ezinbesteko diren jarduerak baliatzea.



Dinamika adibideak:

## UDALEKU IREKIAK

### “Maite zaitut” jolasa:

Borobil batean jarriko dira. Denak aukietan jesarrita, bat izan ezik. Horrek, erdian jarrita, esertzea lortu nahi du eta, horretarako, besteak altxarazi eta leku horietako bat eskuratu behar du.

Besteak altxarazteko norbaitengana hurbildu eta “Maite zaitut” esango du. Besteak “Zergatik?” galdetu behar dio. Lehenengoak ezaugarri edo elementuren batekin erantzun behar dio. Adibidez: kamixeta beltza duzulako.

Beraz, kamixeta beltza duten guztiak altxatu eta lekuz aldatuko dira. Momentu hori erdikoak leku bat lapurtzeko aprobeztatuko du, eta beste pertsona bat geratuko da erdian zutunik.

## UDALEKU ITXIAK

### “Zertarako balio du honek?” jolasa:

Jokalariak bi taldetan banatuko dira eta bi Borobil batean jarrita hezitzaileak objektu bat hartuko du. Edozer izan daiteke: baloi bat, fruta pieza bat, margo bat...

Taldeko kideetako bati emango dio eta galdera egingo dio: “Zertarako balio du honek?”. Erantzun bat eman behar du.

Objektua duenak bere albokoari emango dio eta galdera errepikatuko du. Honek beste erantzun bat eman behar du.

Txandaka, eta galdera errepikatuz, erantzunak eman behar dituzte. Erantzunak ezin dira errepikatu. Beraz, objektu bakoitza balio askorekin lotu behar da.

## LUDOTEKA

### “3 lerroan” jolasa:

Hezitzaileak adibidean ikusten den moduko taula bat marraztuko du arbelean edo kartulinan. Bi talde egingo ditu eta talde bakoitzak bozeramaile bat izango du. Besteek bozeramaileak egiten dizkien galderak erantzun behar dituzte. Euren helburua da 3 lerroan osatzea.

Horretarako, erantzuten dutenaren arabera, bozeramaileak X edo O erantzunaren lekuan kokatu beharko du.

	Mendia	Hondartza	Parkea
Ane	X		
Mikel			O
Josu			

Bozeramailea: Norekin eta nora joan zara?

X:- Ni Anerekin mendira joan naiz.  
O:-Ni Mikelekin parkera joan naiz.

## ANTZERKIA

### “Bikote-bikote (Memori)” jolasa:

Bikotea osatzeko lortu beharrekoa: objektu bat eta objektu horrek duen forma lotzea. Adibidez: Mahaia karratua da.

Bakoitzak orri zati batean objektu bat idatziko du, eta beste batean objektu horrek duen forma. Denon artean denak irakurriko ditugu esaldiak sortuz: adibidez, mahaia karratua da, baloia borobila da eta abar.

Orriak buruz bera jarriko ditugu.

Banan-banan altxatzen joango gara eta bikoteak egitea lortu behar dugu.

Hizkuntza errutina:

Bikotea aurkitu bada: mahaia karratua da.

Bikotea aurkitu ez bada: mahaia EZ DA borobila.



## GAZTELEKUA

### “Hitza kanpora” jolasa:

Hezitzaileak bost hitzez osatutako zerrenda bat irakurriko die. Zerrenda horretan hitz batek ez du enkajerik, beraz, parte hartzaileek “kanporatu” egin beharko dute.

Adb: Hezitzaileak bati “Urdina, Horia, Laranja, Aulkia, Berdea” esango dio.

Parte hartzaileak: Aulkia kanpora! esango du.

Hezitzaileak: Zergatik?

Parte hartzaileak: Ez delako kolore bat.

## MUSIKA ESKOLA

### “Gu gara txapeldunak” jolasa:

Bururatzen zaizkigun adjektiboen zerrenda luze bat egingo dugu eta denak kartulina edo arbelean idatziko ditugu.

Ikasle bakoitzak zerrendan dagoen adjektibo bat aukeratuko du eta horrekin batera keinu bat egingo du (adb. Handia eta belarria ukitu)

Borobil batean jarriko gara, eskuak eta gorputza erabilita denok batera erritmo bat egingo dugu (we are the champions). Bat hasiko da bere hitza eta keinua egiten eta, beste bati txanda pasatzeko, bestearen hitza eta keinua egingo ditu; hori guztia erritmoa egiten dugun bitartean. Txanda jaso duenak bere hitza eta keinua egingo ditu, eta beste bati pasatuko dio txanda. Horrela egingo da norbait okertu arte; orduan, hasieratik hasiko gara.

## DANTZA

### “Ezetz asmatu” jolasa:

Hezitzaileak gelan dagoen objektu batean pentsatu eta bere kolorea esango du. Parte hartzaileek kolore hori duen objektua ukitu behar dute eta hori den galdetu.

HIZKUNTZA ERRUTINA:

-Ezetz asmatu zein den objektu gorria?

(korrika, objektua ukitzera joango dira)

- Estutxea gorria da!

- Estutxea gorria da, baina ez da nire objektua.

- Errotulkia gorria da!

- Bai, errotulkia gorria da. Orain zure txanda da.



**Helburua:** Parte hartzaileen artean euskaraz egitea beraien kabuz.

**Estrategia:** Tresna osagarriak baliatzea giroa zaintzeko (musika, hizkuntza paisaia, jolasak).

Helburu hau aukeratu baduzu zure taldean edo jardueran euskararen erabilera orokorra edo nahiko orokorra delako da. Jarraitu Hezitzaile Berritsu izaten eta tresna osagarriak baliatu giroa

zaintzeko (musika, hizkuntza paisaia, jolasak eta euskal kulturari lotutako gaia eta tresnak).

Ikusi 6.4. eranskina: “baliabide lagungarriak”

Adibidez:

## HIZKUNTZA PAISAIA

• Euskarazko ekitaldien kartelak jartzea: jarduera egiten den gunean herrian edo inguruan antolatzen diren euskarazko ekitaldien berri ematen duten kartelak jartzea (kontzertuak, antzerkia, zinema...).

## MUSIKA

• Txangoetan abestea: oinezko ibilaldietan taldean abestea. “Sardina bat” moduko abestiak. Parte hartzaileak animatzea beraiek ere abestu dezaten.

• Euskal musika jartzea une ezberdinetan: jardueran zehar, une zehatzekin lotuz, euskarazko abestiak jartzea. Hau da: unea eta abestia lotzea. Udaleku Itxietan, adibidez, jaikitze ordurako abesti bat, jatorduen aurretik beste bat, gaubelaren aurretik beste bat, eta abar.

• Gustuko abestien zerrenda egitea: parte hartzaileei azken aldi euskaraz argitaratutako abestiak jartzea, beraiekin hautaketa bat egitea, eta autobus bidaietan abesti zerrenda hori jartzea.

## JOLASAK

• Mahai jokoak euskarazkoak izatea eta jolasaren jarraibideak euskaraz egotea, adibidez, Nor da Nor, Tabu antzekoa, Euskopolia eta antzekoak.

• Haien kabuz jolasteko jolasak eskuragarri izatea, besteak beste, telefono hondatua, rol jokoak, ...

## MAHAI-INGURUAK / EZTABAIDA GUNEAK / TALDEKAKO LANAK

• Jardueraren uneren batean, parte hartzaileen inplikazioa bilatuz gero, haien iritzia eta esperientzia jasotzeko uneak sortu ahal dira, beraien ikuspegia erakusteko, bai eta euskal kulturari lotutako gaiak lantzeko ere, besteak beste, mitologia, jaiak, ohiturak, kirola, bertsolaritza...



# 6.4 BALIABIDE LAGUNGARRIAK



Ondoko lotura hauetan hizkuntza-jolas eta dinamika gehiago aurkitu daitezke. Baita jardueran zehar lagungarri izan daitezkeen beste hainbat baliabide ere.

Hizkuntza-jolasak, jarduera dinamizatuak edota baliabide osagarriak ezagutzeko, ondoko argitalpenetara jo daiteke:

## ARGITALPENA

**Haur eta gazteen jardueretako hezitzaileentzako gida. Euskaraz ikastetik, euskara bizitzera.**

*Arabako Foru Aldundia (2014)*

**Hau jolasa baino gehiago da.**

*Arabako Foru Aldundia (2017)*

**Aisialdian euskararen erabilera sustatzen. Ludotekak eta Jolas Txokoak.**

*Arabako Foru Aldundia (2018)*

**Nerabeentzako aisialdi jardueretan euskararen erabilera sustatzen. Udalekuetarako estrategiak eta programazioan txertatu daitezkeen jarduera proposamenak.**

*Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2019).*

**Nerabeentzako aisialdi jardueretan euskararen erabilera sustatzen. Udalekuetarako hizkuntza-jolas eta dinamikak.**

*Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2017).*

**Nerabeentzako aisialdi jardueretan euskararen erabilera sustatzen. Udalekuetarako Ahobizi dinamikak.**

*Eusko Jaurlaritza, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2019).*

## AZALPENA

Ludoteka, gazteleku, udaleku, antzerki, dantza eta kiroltako hezitzaileei begirako oinarri eta adibideak.

Udalekuetako hezitzaileentzako oinarri, adibide eta baliabideak.

Ludoteka eta jolas txokoetako hezitzaileentzako oinarri, adibide eta baliabideak.

Udalekuetako hezitzaileentzako oinarri, adibide eta baliabideak.

Udalekuetako hezitzaileentzako hizkuntza-jolas proposamenak.

Udalekuetako hezitzaileentzat erabilera motibaziotik sustatzeko jarduera proposamenak.



**Sartu EUDELen webgunera eta begiratu bertan argitalpen horiek guztiak:**

**[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)**

## ARGITALPENA

## AZALPENA

**Haur eta nerabe zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen. Udaletako gazteria eta euskarako teknikarientzat gida.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Haur Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Haur Zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Nerabe zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Nerabe zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzen.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Nerabe zerbitzuetan motibazioak lantzeko jarduerak.**

*Gipuzkoako Foru Aldundia, Gazteria eta Euskara Sailak (2017).*

**Euskal dantzak euskararen babesgune.**

*Ebete hizkuntza-zerbitzuak (2023).*

**Kirol jardueretan euskara sustatzen.**

*Ebete hizkuntza-zerbitzuak (2022).*

Udaletako teknikarientzat Gazteleku eta Ludoteken antolaketara eta jarraipenera begirako oinarri eta proposamenak.

Ludoteketako hezitzaileentzat euskara sustatzeko oinarriak, adibideak eta baliabideak.

Erabileran eragiteko jarduera-adibideak ludoteketako hezitzaileentzat.

Gaztelekuetako hezitzaileentzat euskara sustatzeko oinarriak, adibideak eta baliabideak.

Gaztelekuetako hezitzaileentzat dinamizatutako jardueren adibideak.

Gaztelekuetako hezitzaileentzat parte hartzaileen euskararekiko motibazioa lantzeko oinarri eta proposamenak.

Euskal dantzetako irakasleentzako oinarriak eta proposamenak.

Kirol jardueretako entrenatzaileentzako proposamenak eta jarduera adibideak.



**Sartu EUDELen webgunera eta begiratu bertan argitalpen horiek guztiak:**

**[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)**

## WEBGUNEA

## AZALPENA

### TXANTXANGORRIA

Euskarazko musika.



### BADOK

Euskarazko musika. Disko eta kanta berrienak ere bai.

### ZER NON IKUSI

Euskarazko ikus-entzunezkoen informazio zabala eta eguneratua.

### ERANAFARROA

Euskarazko jolasak, abestiak, hizkuntza-jolasak eta beste baliabide batzuetara loturak.

### ETXEGIROAN

Entzuteko ipuinak.

### AITTU

Ipuinak.



### SOLAS EGITEKO IPUINAK

Ipuinak.

### HEZTEN.EUS

Euskarazko jolasak.

### AKEBAI GAZTEENTZAKO BALIABIDEAK

Pantailetan gazteentzako edukiak euskaraz.

### GAZTEA PODKASTAK

Euskarazko edukiekin podkastak.



### GAZTEZULO

Gazteei begirako albisteak, erreportaiak eta blogak.



Sartu EUDELen webgunera eta begiratu bertan webgune horiek guztiak:

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)

# 6.5

## JARRAIPENA EGITEKO ETA ONDORIOAK ATERATZEKO BALIABIDE TELEMATIKOA

**Baliabide xume bat** sortu da, gida honetan proposatzen diren prozedurak arin eta erraz erabili eta bistaratzeko. Baliabide hori edozein eragileren eskura dago EUDELen webgunean:

[www.eudel.eus](http://www.eudel.eus)

Edo posta elektronikoz eskatu daiteke:

[eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)

Jarduera kudeatzen duen enpresa edo elkarteko arduradunek erabiltzeko galdetegiak dira, eta **hezitzaile taldeak edo koordinatzaileak betetzekoak**. Udaletako teknikariak jarraipenean edo amaierako balorazioetan eredu hori erabiltzea eta balorazioak horren arabera egitea eskatu dezake.

Galdetegien zeregina da abiapuntuko **euskararen erabileraren egoera zein den ikustea, helburuak** egoera horrekin ondo **lotzea** erraztea eta **helburuentzat estrategia egokiak eskura jartzea**, bai eta jarraipena egiteko eta erabileraren **bilakaera bistaratzeko aukera** ematea ere.

Hiru galdetegik osatzen dute tresna hori.

### **Egoeraren deskribapena egiteko, helburuak aukeratzeko eta helburuak estrategiekin lotzeko galdetegia**

- **Parte hartzaileen euskararen erabilerari buruz galdetzen da:** hezitzaileekin nola egiten duten eta beraien artean nola egiten duten egoera lagundu, bideratu edo irekietan.
- **Helburuak aukeratzeko bide ematen da,** diagnosiari erreferentzia eginez. Lau helburu ematen dira aukeran, eta gehienez bi hautatzea proposatzen da.
- **Hautatutako helburuak estrategia batzuekin lotzeko aukera ematen da.**

### **Jarraipenerako galdetegia**

- **Aukeratutako helburuen eta estrategien erabilerari buruz eta eraginkortasunari buruz galdetzen da,** hau da, aurreikusitako moduan erabili ote diren eta erabileran eraginik izan ote duen.

### **Amaierako galdetegia**

- **Aukeratutako helburuen eta estrategien erabilerari buruz eta eraginkortasunari buruz galdetzen da.**
- **Parte hartzaileen euskararen erabilerari buruz galdetzen da,** jardueraren hasieratik amaierara bilakaerarik egon ote den ikusi ahal izateko.





**EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA**  
**ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS**

